

# DEFENTSIBATIK OFENTSIBARA

JOXE AZURMENDI

Orain ez dugu eus-kara «salbatu» egin nahi, indartu eta hedatu egin nahi dugu. Gobernuaren eta instituzioen indarrak baliatu nahi dugu haren alde. Beraz, Estatuaz

Baina inposaketarik ere ez dugu nahi: indar sozialen espektro guztiak onartzen eta apoia-tzen duen ekintza zabal bat nahi dugu (ez «abertzaleona» bakarrik, abertzale hitzaren zentzu meharrean). Euskadi osoa eta Euskadin denok bat eginda.

Beraz, hemengo Alderdien eta indar sozial guztien oinarrizko abertzaletasun bat eta kolaborantza espero dugu euskararen alde.

Ez dakit itxaropen hau erréalista gertatuko ote den: dena dela, orain Alderdi denek abertzale edo euskaltzale aitortzen dituzte beren buruak, euskararen planteamenduak hori deskuidatzerik ez dauka. Eta, gero, tradizio abertzale edo euskaltzale gutxiko zenbait Alderdi eta jende eginkizun horretaz despreokupatuko balitz ere, planteamendu zabal bat egitea tokatzen da orain, berez edozeinek onartu ahal dezan, interesik egiaz baldin badu. Hala behar du, komenentzia politikoengatik baino gehiago, egitekoaren naturagatik beragatik batez ere.

Bigarren, orain arte interesatzen ez zitzaionari ere interesatzeko moduko planteamenduak bilatu baharko genuke. Gure historia bereziagatik, hemen egon den dikotomia klasikoagatik eta, Alderdi batzuk (sozialistak) euskararengatik ez ziren deus arduratu ohi. Beste planteamendu batzuekin gehiago interesatuko al diren, nik neuk behintzat ez dakit. (Hor kontu asko sartzen da: base soziala, interes elektoralak, Alderdien arteko diferentzia—legeak, etab.). Baina berez horien logikan ere interesatzen duten planteamenduak egin beharko dira, atek inori alde zuzenetik ez hersteke. Eta ezin espero genezakeelako, besteak guri interesatzen zaizkigun lanetan enpeinatzea, berei ezer interesatu ezta ere.

Eta, azkenik, defentsibatik ofentsibara pasa nahi badugu, perspektibak ere aldatu beharra dago. Orain artean gehienbat giza—eskubideen mailan gigitu izan gara: euskaldunak gara eta euskaraz aritzeko eskubide dugu; giza—eskubideen kontrakoa da eskolarik, irratirik, telebistarik, etab. euskaldunentzat ez egoitea, etc. etc. Giza eskubideak. Birreuskalduntzea, ordea, beste nolabait oinarritu eta motibatu baharko da.